

TRANSIZIOKO HARAN GARAIAK ETA MENDIAK

ARABA A.18 Entzia



Entziako mendilerroa Nafarroan dagoen Urbasako mendilerroaren luzapen geologiko, geografiko eta biologikoa da eta Iturrieta eta Entziako partzuergoen gune nagusia hartzen du barnean: zakarki, zintzur izugarrietan, Arabako lautadarantz eta Aranako haranerantz jaisten den goi-ordoki zabala. Ereku horretan aspaldikoa den artzain-tradizioak bertako paisaia modelatu du, eta

goi-ordokian larre-eremu handiak sortu; mendi-hegalak, aldiz, pagadi zabalek estaltzen dituzte eta gure Erkidegoko fauna-komunitate garrantzitsuenetariko bat bizi da bertan. Enklabe horretako paisaia ikusgarrietako bat sakonera handiko Igoingo sakana da, Iturrieta mendietako kareharritzko egitura Musitu errekek mendez mende zulatuta duena.



FIGURA ETA NEURRI BABESLEAK

- Parke Naturala izendatzeko izapidea bideratuta dago.
- IKT (Interes Komunitarioko Tokiak).

LANERAKO GAIAK

- Mendilerroaren jatorri geologikoa: Karst-a eta paisaia karstikoa, Entziako akuiferoa.
- Inguruneen dibertsitatea mendilerroan: basoak, sasiak, larreak, harkaitzak.
- Pagadia. Hedadura. Antolamendua (goi-mendia eta behe-mendia). Erabilera tradizionalak.
- El Raso (larrea): Gizakiaren ekintzen eraginez aldatutako paisaia, abeltzaintza estentsiboa (behorrak, behiak eta ardi latxa), Jatorrizko Izendapena duen Idiazabal gazta.
- Igoingo sakana: paisaiaren interpretazioa. Laiotz-eremuko (pagadia) eta egutera-eremuko (erkameztia) landaredi disimetrikoa.
- Santa Teodosia: baseliza eta galtzada, Santa Teodosiako lizarrak (Arbola Berezia), espezie horren inguruko usadioak eta sinismena artzain-kulturan.
- Basoen ustiapen jasangarriak: Partzuergoen adibideak.
- Usadio tradizionalak: Igoingo errota.
- Elementu arkeologikoak: artzain-kultura eta monumentu megalitikoak, Sorginetzeko dolmena.
- Herri-kultura: "Mayo" delako errittoa San Vicenten, jatorria eta funtsa.